

Ez, ez dizu geiago oillorik uxatzen,  
lastertxu ikasi du aiskide izaten;  
ez dizkigu geroztik oilloak kiñutzen,  
eta are gutxiago atzetik ekiten.

## IGELAK

*Etxe azpian, berrogei metrora bezela, aintziñako osin bat dago gurean, nere aitonak saskiak ontzeko bear zituen gaztain adaskak beratzen eduki oi zituna. Aspaldi ez zu ezagut gurean egiñiko zararik, baiña ortxe dago osiña apakiñez ta zugaitz txikiz egaletatik josita. Igelak ere, illunabar batzuetan batez ere, sekulako iskanbilla sortu oi digute.*

Doiñu: 8-7

Geron esparru azpian  
osin txikia dago,  
ertzez ertz neurtu ezker  
beetik da zabalago.

Euria jaustean beti  
kantuz dituzu igelak,  
azke dituzte ta nasai  
eztarriko ugelak.

Illargiak argitzean  
badute arramantza,  
ura goitik gaiñera  
eroria ba litza.

Igel osin barrukoak,  
ene igeltxo bizkorrak,  
bota, bota atertu gabe  
garraxi biozkorrak.

Nere laguntxo zerate  
bei-zaiñean naizela,  
ta maite zaituztet maite,  
illargiak bezela.

Igel, igeltxo arreak,  
kanta nere sortetxe  
ondoan; ez aspertu, ez,  
iñoiz! Jarrai olatxe!

Eman intziri ta oiur  
eguna iratzartzean,  
kanta eresi ta lelo  
argia lokartzean.

Jo kanta samin artean,  
jo kanta pozez ere..  
Igel, igeltxo maiteok,  
zaitezte beti nere.

